



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF, JAUNAK
JAINKOARI ETA APOSTOLU AULKI SANTUARI ESKER,
DONOSTIAKO GOTZAINA NAIZEN HONEK

DEKRETU BETEARAZLEA

Biziera Sagaraturako Institutu eta Biziera Apostolikoko Elkarateentzako Kongregaziotik, 2025eko irailaren 4ko 97914/1994 Protokolo zenbakia duen Dekretua betearazteko agindua jaso izanik, honakoa jasotzen delarik bertan: Donostiako Elizbarrutiko, Gipuzkoa (Espainia), Tolosako Klaratarren *Santa Klara* Monasterioa ezabatzea.

ADITZERA EMATEN DUT

Gaurtik aurrera, Tolosako *Santa Klara* Monasterioa ezabatua gelditzen dela. Kongregaziotik jasotako Dekretuan esaten denaren arabera, lekaimeak definitiboki Gasteizko (Espainia) Sortzez Garbiaren Monasteriora pasa daitezela.

Era berean, *Santa Klarako* Monasterioaren ondasun higigarri eta higiezinak, fundatzaileen eta ongileen borondatea salbu, Gasteizko (Espainia) Sortzez Garbiaren Monasteriora pasatzen direla, *Cor Orans* Instrukzioko 72. zenbakiak dioenaren arabera. Bestelako betebeharririk balego hirugarrenetikiko, zuzenbide arrunteko eta partikularreko aginduak beteko dira elkar adostuz.

Xedapen honen adierazgarri, neure eskuz sinatu eta zigilatutako, eta azpian sinatzen duen Gotzaindegiko kantziler eta idazkari orokorrak berretsitako Dekretu hau bidaltzeko agindua ematen dudala. Gorde bedi agiri honen kopia bat dagokion artxibategian.

Argitara bedi dekretu hau Gotzaindegiko Aldizkari Nagusian.

Donostian emana, 2025eko urriaren 6an

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**
Donostiako gotzaina

Gotzain Jaunaren aginduz

Luzia Alberro Goikoetxea
Kantziler eta idazkari orokorra